

TAO mugikortasun murriztua duten pertsonak

OTA personas con movilidad reducida

Informazioa	Información
Ibilgailu motak Mugikortasun murriztua duten pertsonak gidatutako ibilgailuetarako salbuespenezko araubidea honakoei aplikatuko zaie: autoei, ibilgailu misto egokigarriei, hiru gurpileko ibilgailuei eta kuadrizikloei, baldin eta haien baimendutako gehieneko masa 3.500 kg-koa edo txikiagoa bada.	Tipo de vehículos El régimen excepcional para vehículos conducidos por personas con movilidad reducida resulta de aplicación a aquellos vehículos tipo turismo, vehículos mixtos adaptables, vehículos de tres ruedas y cuadriciclos cuya masa máxima autorizada sea menor o igual a 3.500 kg.
Aparkatzeko baldintzak Baimenaren titularrek araututako aparkalekuetan –erreserbatuak ez dauden plazak– aparkatu ahal izango dute dagokion tasa ordaindu ondoren horretarako ezarritako sistemaren bidez, eta ez dute gune bakoitzerako ezarri den aparkaldi mugaturik izango.	Condiciones de estacionamiento Las personas titulares de la autorización podrán estacionar en las zonas de estacionamiento regulado –plazas no reservadas– previo abono de la tasa correspondiente mediante el sistema implantado a tal fin, sin estar sujetas a la limitación de tiempo máximo de permanencia establecido para cada zona.
Mugikortasun murriztua duten pertsonak erabiltzeko gune erreserbatuan, aparkaldia doakoa izango da, eta jarraian 24 orduz aparkatu ahal izango da gehienez ere; denbora hori igarota, ibilgailua lekuz aldatu beharko da. Ezin izango da berriro plaza erreserbatu berean aparkatu azken aldiz bertan aparkatu denetik 12 ordu igaro arte.	El estacionamiento en las plazas reservadas para el uso de personas con movilidad reducida será gratuito y el tiempo máximo de estacionamiento continuado será de 24 horas, transcurridas las cuales deberá desplazar el vehículo a otra plaza. No se podrá volver a estacionar en la misma plaza reservada hasta que hayan transcurrido 12 horas desde el fin del último estacionamiento.
Indarraldia Baimena zer urtetarako jaulki den, urte natural horretan izango da indarrean. TAO automatikoki berritzen da. Titularrak ez badu berritzeko asmorik, baja emateko eskatu beharko du Udaletxean, abenduaren 31 baino lehen.	Vigencia La autorización tiene un periodo de vigencia correspondiente al año natural para el que ha sido expedido. La renovación de la OTA es automática. Si la persona titular no está interesada en su renovación, deberá solicitar la baja al Ayuntamiento con anterioridad al 31 de diciembre.
Bereizgarria Nahitaezkoa izango da dagokion bereizgarria aurreko haizetakoaren eskuineko barruko angeluan jartzea, eta hura beharrezko baldintza izango da dagokion aparkatzeko baimenak ondorioak izan ditzan.	Distintivo Será obligatorio colocar el distintivo correspondiente en el ángulo interior derecho del parabrisas delantero, y su será condición necesaria para que la correspondiente autorización de aparcamiento tenga efectos.
Helbidez aldatzea Nahitaezkoa da helbide aldaketan berri Udalari ematea, jakinarazpenetarako.	Cambios de domicilio Cualquier cambio de domicilio, requiere una comunicación al Ayuntamiento a efectos de notificaciones.
Ibilgailua aldatzea Ibilgailua aldatzen bada, aparkatzeko bereizgarriaren erabiltzaileak horren berri eman beharko dio idatziz Udalari. Horretarako, ezarritako baldintzak bete beharko ditu.	Cambios de vehículo Cuando se realice un cambio de vehículo, la persona usuaria de la autorización de aparcamiento, tendrá que comunicar por escrito al Ayuntamiento. Para ello, deberá cumplir con los requisitos establecidos.



Baldintzak galtzea

Ezinbesteko baldintzak baimenaren indarraldi osoan bete behar dira. Baldintzaren bat galduz gero, erabiltzaileak horren berri eman behar du.

Udalak beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu, eta, horien bidez egiaztatzen badu erabiltzailea behar ez bezala erabiltzen ari dela baimena, berau baliogabetzeko espedientea abiaraziko du.

Pérdida de requisitos

Los requisitos deberán cumplirse durante todo el plazo de vigencia de la autorización otorgada. Si se pierde alguno de los requisitos, se ha de comunicar.

El Ayuntamiento podrá realizar las comprobaciones oportunas y si resultara que se se está realizando un uso indebido de la autorización, se iniciará expediente para la revocación.

Betebeharrak		Requisitos
Donostian erroldatua Ohiko bizilekua Donostian edukitzea. Ondorio horietarako, eskaera egiten duen egunean Donostiako udalerrian erroldatuta egotea nahikoa izango da eskatzaileak ohiko bizilekua Donostian finkatuta duela jotzeko.	1	Empadronamiento en San Sebastián Tener fijado el domicilio habitual en San Sebastián. A estos efectos se entiende que tiene fijado el domicilio habitual quien a la fecha de la solicitud se halle empadronada en el término municipal de San Sebastián.
Ibilgailu baten erabiltzaile izatea:	2	Ser persona usuaria de un vehículo:
a) Ibilgailuaren jabea. Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emandako zirkulazio-baimenean ibilgailuaren titularra dena izango da haren jabea.		a) La propietaria del vehículo. Se considerará propietaria del vehículo la persona que conste como titular del vehículo en el permiso de circulación expedido por la Jefatura Provincial de Tráfico.
b) Ibilgailu bat leasingean edo errentan hartzen duena, baldin eta ibilgailuaren ohiko gidaria bada.		b) Quien disponga de un vehículo en leasing o renting, siempre que sea conductora habitual del vehículo.
c) Enpresak lagatako ibilgailua duena, baldin eta ohiko gidaria bada eta enpresaren baimena badu ibilgailua berak bakarrik eta lanorduetatik kanpo erabiltzeko.		c) Quien disponga de un vehículo cedido por su empresa, siempre que sea la conductora habitual del vehículo y esté autorizada por la empresa para hacer uso del vehículo en exclusiva y fuera del horario de trabajo.
Zirkulazio zerga Bereizgarria behar duen ibilgailua Donostiako Udalaren trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eroldan alta emanda egotea. Aurreko atalaren b) eta c) idatz zatietan aurreikusitako kasuetan ez da eskatuko baldintza hori betetzea.	3	Impuesto de circulación Que el vehículo para el que se solicita la autorización esté dado de alta en el Padrón del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica del Ayuntamiento de San Sebastián. El cumplimiento de este requisito no se exigirá en los supuestos previstos en las letras b) y c) del apartado anterior.
Gidabaimena indarrean Gidabaimena indarrean edukitzea, Espainian gidatzeko baliozkoa, indarrean dagoen araudiaren arabera.	4	Permiso de conducir en vigor Disponer de permiso de conducir en vigor, válido para conducir en España de acuerdo con la normativa vigente.
Europako txartela Pertsona Ezinduentzako Aparkatzeko Europako Txartela" indarrean izatea.	5	Tarjeta Europea Disponer de la "Tarjeta Europea de Estacionamiento para personas con discapacidad" en vigor.
Ibilgailua egokitua Baimena behar duen ibilgailua aitortutako ezintasunari egokituta egotea.	6	Vehículo adaptado Que el vehículo para el que se solicita la autorización esté adaptado a la discapacidad declarada.